ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA ZERBITZUAK PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO

OBRAK EGITEKO PROIEKTUA, BI FASETAN: GOIKALE EGOKITZEA ETA NAREA BIDEKO LOTURA

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza-agiri honen arabera egingo den kontratuaren xedea hau da: Aulestiko Goikale eta Narea bideko lotura, Aulesti ingurua egokitzeko obren Egikaritze-Proiektua, kontratu izaera izango duen espedientean dagoen dokumentazio teknikoa jarraituz.

Kontratuaren xedeari dagokion CPV nomenklaturaren kodea:

71240000-2 Arkitektura, Ingeniaritza eta Plangintza Zerbitzuak.

2. OBRAK BURUTZEKO EPEA

Kontratu honen xede diren zerbitzuak burutzeko epea obraren iraupena izango da, hau da, HIRUROGEITA BAT (61) LANEGUN. Era orientagarrian honela banatzen da:

- Lehen fasea (Aurreproiektua): HOGEITA BAT LANEGUN (21) kontratua sinatzen denetik.
- Bigarren fasea (Egikaritze-Proiektua): BERROGEI LANEGUN (40) aurreproiektua onartzen denetik.

3. KONTRATUAREN AURREKONTUA

Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua, BEZ gabe, ondoko hau izango da: HOGEITA HAMABOST MILA EURO (35.000,00 €). Lizitatzaileek aurrekontua hobetu dezakete. Era orientagarrian honela banatzen da:

Lehen fasea: 10.000 €, BEZ gabe.

Bigarren fasea: 25.000 €, BEZ gabe.

4. FINANTZABIDEAK

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan. Bestaldetik, hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jarriko ditu aurrekontu gaietan eskumena duen organoak.

5. ORDAINTZEKO ERA

Egindako zerbitzuen ordainketa era honetan egingo da:

- %10 kontratua sinatzerakoan.
- % 20 aurreproiektua aurkezterakoan.
- %70 Egikaritze-Proiektua aurkezterakoan.

6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honetan ez da bidezkoa prezioak berraztertzea, espedientean egiaztatzen denez.

7. BERMEAK

Kontratuaren esleipenduna, hartutako konpromisoak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea eman beharko du. Berme hori kontratuaren esleipen zenbatekoaren % 5koa izango da, BEZa kenduta.

Berme hori jartzeko epea egutegiko hamar egunekoa izango da, esleipena kontratatzaile profilean argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Bermea jartzeko bidea, berriz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (aurerrantzean SPKL) 108. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke. Bermea eratu

Aulestiko Udala. Donibane enparantza 1-48380 Aulesti, Bizkaia Tel.: 94 6279006-Faxa: 94 6279117 – P4808100D
Web orria: www.aulesti.eus – E-maila: idazkaria@aulesti.eus

dela egiaztatzeko bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoak erabil daitezke. Baldintza hori ez bada betetzen lizitatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, esleipenak ez du eraginik izango.

Berme-epea amaitzen denean, bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebehar guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako SPKLren 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz egingo da.

8. KONTRATUA BURUTZEA

Kontratua sinatzearekin batera hasiko da kontratua betetzea.

Kontratua kontratistaren gain eta kontura burutuko da.

Zerbitzuak egiterakoan, agiri honetan dauden baldintzak bete beharko dira, bai eta espedienteari erantsitako xehetasun teknikoak ere, halakorik egonez gero. Kontratua Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

9. KONTRATISTAREN LAN ARLOKO BETEBEHARRAK

Kontratu honen xede diren obretan kontratatutako langileei dagokienez, kontratistak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

10. KONTRATUAREN EGIKARITZARAKO GIZARTE, ETIKA, INGURUMEN EDO BESTELAKO BALDINTZA BEREZIAK

SPKLren 202.1 artikuluan oinarrituta, honako baldintza bereziak ezartzen dira:

Linguistikoak.

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean ezarria eta, besteak beste, Udalaren barne erabilera planean erregulatua.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 62. artikuluari jarraiki, kontratuaren arduradunak kontratua nola betetzen den ikuskatuko du, hizkuntza baldintzak behar bezala betetzen diren jarraipena egin, eta horren inguruan beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu.

Baldintza agiriotan ezartzen diren hizkuntza baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea.

Enpresa esleipendunak Udalaren hizkuntz araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan, bai ahozkoetan, bai idatzizkoetan; eta beraz, enpresak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak Udalaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira, 179/2019 Dekretuaren, azaroaren 19koaren, III. kapituluan zehaztutako aukerari jarraiki.

Ageriko hizkuntza erabileran (iragarpen, errotulu, ohar, seinale eta abarretan) gutxienez euskara erabiliko da.

11. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Kontratistaren ardura da hornidura-eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 196. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Aulestiko Udala. Donibane enparantza 1-48380 Aulesti, Bizkaia Tel.: 94 6279006-Faxa: 94 6279117 – P4808100D
Web orria: www.aulesti.eus – E-maila: idazkaria@aulesti.eus

12. KONTRATUAREN ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du SPKLren 205 artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen bada beti ere, lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

Berebiziko aldatze kasu bezala hartzen da Udalaren ahalmen eta aukera Bigarren Fasearen hasiera bera ukitzen duten hirigintzako dokumentuen tramitaziora doitzeko. Beraien berri emango zaio kontratistari udal arduradunen eta zuzendaritza fakultatiboaren bitartez

13. ZERBITZUAK HARTZEA ETA BERME-EPEA

Zerbitzua amaitu eta, gehienez, hilabete pasa baino lehen, zerbitzuak esleitzailearen esku utziko dira eta egintza horren akta egingo da.

Gainera, SEI (6) HILABETEKO epea egongo da harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako.

Beti ere, legearen mugen barruan, kontratistak sortarazi ahal ditzaken erantzukizunen kalterik gabe.

14. KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

Zigorrak ezarriko zaizkion kontratistari ondoren aurreikusten diren kasuetariko baten erortzen bada:

a) Kontratua burutzeko epeak ez betetzea. Kontratistak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko obrak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,60 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko.

Lanak garaiz burutu ez izanagatiko zigorra kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiplo bat izatera iristen den bakoitzean Kontratazio Organoak kontratua eteteko eskumena du, edo kontratuaren jarraipena adosteko, zigor berriak ezarrita.

b) Prestazioen burutzapen partziala edo akatsekin egitea. Kontratistak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorrak ezartzea, beti ere diru-zigor honen multzoak ez badu kontratuaren kopuru osoaren 100eko 50 gainditzen.

c) Kaudimen konpromisoak ez betetzea. Kontratistak bere eskaintzan adierazitako bitarteko materialak eta langileak erabiltzeko betebeharra ez badu betetzen, 19. klausulan adierazi bezala, Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

15. KONTRATUAREN SUNTSIARAZPENA

Zerbitzu-kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211 eta-313. artikuluetan azaltzen direnak izango dira. Kontratua suntsiarazi ahal izateko arrazoi berezi bezala ezartzen da Legearen 202 artikuluan oinarritutako baldintzak ez betetzea.

16. ADMINISTRAZIOAREN ESKUDUNTZAK

Administrazioari dagokio kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aulestiko Udala. Donibane enparantza 1-48380 Aulesti, Bizkaia Tel.: 94 6279006-Faxa: 94 6279117 – P4808100D
Web orria: www.aulesti.eus – E-maila: idazkaria@aulesti.eus

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

17. ESLEIPENAREN PROZEDURA

Kontratu honen esleipena prozedura ireki bidez egingo da.

Kontratuaren esleipenaren oinarri gisa erabiliko diren eskaintzak balioesteko irizpideak eta esleitzen zaien haztapena honako hauek dira:

A GUTUN-AZALA: BALIO JUDIZIO BATEN MENPE DAUDEN IRIZPIDEAK:	**%-ptak**
a.3) Jarduketa programa eta lan metodologia Atal honetan baloratuko da jarduketa osoaren eta bere gorabeheren eta konplexutasunaren ezagupen maila, eta baita proiektuaren guztien azterketa xehatua eta bera osatzen duten dokumentu ezberdinen arteko koherentziaren zehaztasun. Azterketa hauek aurkeztuko dira: • Memoria eta eraikuntza planteaketa: 30 pt. • Aurrekontua, atalen zehaztapena: 7,5 pt. • Kalitate-kontrol programa: 2,5 pt. • Hondakinen kudeaketa azterlana: 2,5 pt. • Segurtasun eta osasungarritasun azterlana: 2,5 pt.	**45**
B GUTUN-AZALA: AUTOMATIKOKI ANTZEMATEN DIREN IRIZPIDEAK	**%-ptak**
a.1) Proposamen ekonomikoa Puntuaziorako honako pauta hauek hartuko dira kontuan: Lizitazio bajak, 0 eta %8 bitartean, 5 puntu merkatzen den ehuneko bakoitzeko. %8 baino baja haundiagoko eskaintzarik balego, gehienezko 55 puntuak lortuko lituzke ehuneko baja haundiena aurkeztu duenak; % 8 baino baja haundiagoa aurkezten duen gainerakoak puntuazio bien interpolazio linealaren bitartez lortuko dute.	**35**
a.2) Esperientzia Agiri honen 19. klausulan adierazitako goi-mailako tituludunak parte hartu duen antzeko proiektu bakoitzeko (*): 5 puntu, eta gehienez ere 20 puntu. Dagokion administrazioak horretarako emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da. (*) Kaudimen teknikoan eta baliabideen atxikipenean ezarritako gutxieneko betetzetik aurrera ulertu behar da, hau da, kaudimen teknikoa betetzeko adierazitako proiektua irizpide honi dagokion puntuazioa lortzeko zenbaketatik kanpo geratuko da.	**20**

Esperientzia egiaztatzeko, proiektuaren administrazio kontratatzailearen ziurtagiria aurkeztu beharko da, edo, bestela, enpresaburuaren adierazpen bat, haren esku dauden eta prestazioa gauzatu dela egiaztatzen duten agiriekin batera. Horietan guztietan, zenbatekoa, data eta hartzailea zehaztu beharko dira.

Eskaintza nabarmenki baxuegia den ala ez erabakitzeko, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren 85. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako parametro objektiboak aplikatuko dira, aurkeztutako eskaintza baliodunak erreferentziatzat hartuta.

Aulestiko Udala. Donibane enparantza 1-48380 Aulesti, Bizkaia Tel.: 94 6279006-Faxa: 94 6279117 – P4808100D
Web orria: www.aulesti.eus – E-maila: idazkaria@aulesti.eus

Kontratatze-Mahaia ondoko kideek osatuko dute:

- Presidentea: Aulestiko udaleko alkatea
- Bokalak:
    - Hirigintza arloko kidea den zinegotzia
    - Aulestiko udaleko arkitekto-aholkularia
    - Aulestiko udaleko idazkaria
- Mahaiko idazkaria: idazkaritzako administraria

18. KONTRATATZEKO AHALMENA ETA GAITASUNA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 73. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeko eta ebaluatzeko bideak 19. baldintzan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariek kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordez bertako kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Enpresariek, gainera, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

Kontratua gauzatzera atxikitako gutxieneko teknikari talde bat eskatzen da, gutxienez honako baldintzak beteko dituena:

- Teknikari bat, goi-mailako Arkitekto edo goi-mailako Ingeniari titulua duena; horrez gain ondokoa egiaztatu beharko du: hamar urteko gutxieneko esperientzia eta azken hamar urte horietan gutxienez 500.000 euroko egikaritza materiala baino gehiagoko antzeko proiektu baten egile izatea.
- Teknikari bat, Arkitekto tekniko, Aparejadore edo gaitasuna ematen dion titulua duena; horrez gain ondokoa egiaztatu beharko du: hiru urteko gutxieneko esperientzia eta azken hiru urte horietan gutxienez 500.000 euroko egikaritza materiala baino gehiagoko antzeko obra baten egikaritza materialaren zuzendaria izatea.
- Kultura ondarean aditu bat; aurreko teknikari bietako batekin ahal da etorri bat; horrez gain ondokoa egiaztatu beharko du: hiru urteko gutxieneko esperientzia eta azken hiru urte horietan gutxienez 500.000 euroko egikaritza materiala baino gehiagoko birgaitze obra baten parte hartu izana.

Eskatzen da ere taldea gai izatea euskaraz komunikatzeko, bai ahoz, bai idatziz, administrazioarekin eta eraikitze-prozedurako gainerako interesatu guztiekin. Taldekide batek, gainera egiaztatu beharko du, dagokion ziurtagiri bitartez, 3HE edo baliokide den hizkuntza gaitasuna duela.

19. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO ERA

Lizitazio hau Udalaren kontratatzaile-profilean argitaratuko da, zeina Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Plataforman baitago.

Proposamenak bitarteko elektronikoz aurkeztu behar dira plataforma horren bidez, 26 egun balioduneko epean argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik aurrera, epearen azken eguneko 13:30ak baino lehen.

Honako helbide honen bidez sartu ahal izango da Udalaren kontratatzaile-profilean: www.aulesti.eus. Toki horretan bertan eskuratu ahal izango dira klausula-agiriak eta dokumentazio osagarria.

Lizitatzaileek informazio gehigarria eskatzen badute klausula-agiriei edo dokumentazio osagarriari buruz, jasotzeko ezarritako muga-eguna baino sei egun lehenago emango zaie informazio gehigarri hori

Aulestiko Udala. Donibane enparantza 1-48380 Aulesti, Bizkaia Tel.: 94 6279006-Faxa: 94 6279117 – P4808100D
Web orria: www.aulesti.eus – E-maila: idazkaria@aulesti.eus

beranduenez, baldin eta gutxienez proposamenak jasotzeko muga-eguna baino zortzi egun lehenago egin badira eskariak.

SPKLren 136.2 eta 136.3 artikuluetan xedatutakoaren arabera, klausula-agiriei edo dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeetan entregatzerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko aldez aurretik lanen tokian bertan bisita egin behar bada edo klausula-agiriari erantsitako dokumentazioa in situ kontsultatu behar bada, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, ukitutako hautagaiek eskaintzak egiteko behar duten informazio guztia jasotzeko egokitzat jotzen den adina.

Lizitazio-prozedura honetan, ez da onartuko eskaintzarik gorago adierazitako bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu ezean.

Eskaintza bateko dokumenturen bat ezin bada behar bezala ikusi, gorabehera hori jakinarazi eta gehienez 24 orduko epea izango du lizitatzaileak fitxategi akastunean zegoen dokumentua formatu digitalean aurkezteko. Geroago aurkeztutako dokumentu horrek ezin izango du aldaketarik izan eskaintzan aurkeztutako jatorrizko dokumentuaren aldean. Kontratazio-organoak ikusten badu dokumentuak aldaketaren bat izan duela, baztertu egingo da lizitatzailearen eskaintza.

Proposamenek administrazio-klausula partikularren agiri honetan ezarritakoa bete beharko dute. Proposamena aurkezteak berekin dakar lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzea klausula edo betekizun horiek, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe, eta kontratazio-mahaiari eta kontratazio-organoari baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko datuak kontsultatzeko.

Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu; dena den, aldaerak onartu ahal izango dira. Halaber, ezin izango du beste aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez inolako proposamenik aurkeztu, baldin eta aurretik bakarka aurkeztu badu, ezta aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan egon ere. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko lizitatzaile horrek izenpetutako proposamenik.

Lizitatzaileek konfidentzial izenda dezakete eskaintzak egitean berek emandako informazioaren parte bat, informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legeriak xedatutakoa eta SPKLn adjudikazioaren publizitateari buruz eta hautagaiei nahiz lizitatzaileei eman behar zaien informazioari buruz dauden xedapenak gorabehera; bereziki, hori egin ahal izango dute beren sekretu tekniko edo komertzialei eta haien alderdi konfidentzialei dagokienez. Udalak ezin izango du informazio hori zabaldu lizitatzailearen baimenik gabe.

Lizitatzaileek bi kartazal elektroniko aurkeztu beharko dituzte. Kartazal elektroniko hauek itxita eta lizitatzaileak edo bera ordezten duenak sinadura elektroniko aitortu bidez sinatuta egongo dira. Sinadurak, horrez gain, kartazalean dauden agirien identitate eta osotasuna bermatuko du. Bere barruan etorriko da dakartzan dokumentuen zerrenda zenbakitu bat.

“A” GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- “GAITASUNA, KAUDIMENA ETA BALIO-IRITZIEN BIDEZKO BALOESPEN IRIZPIDEAK”

Agiri hauek izango ditu gutun-azalak:

a.1) Posta elektronikoko helbide gaitua.

Posta elektronikoko helbide gaitu bat izendatu behar da, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera; helbide horretara igorriko dira kontratazio-espediente honetatik eratorritako jakinarazpenak.

a.2) Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena.

Adierazpen horretan, lizitatzaileak adieraziko du betetzen dituela bai administrazioarekin kontratatzeko legeak ezarritako baldintzak, bai kontratua lortzeko klausula-agiri honetan ezarritako eskakizunak. Kontratazio-agiri europar bakarraren (KAEB) inprimakiaren araberakoa izango da adierazpena. Ikusi I. Eranskina.

Dena den, prozedura ondo burutzen dela bermatzeko, kontratazio-mahaiak edo kontratazio-organoak lizitatzaileei eska diezaieke dokumentazioa aurkez dezaten kontratuaren adjudikazioduna izateko klausula-agiri honetan eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko, kontratua adjudikatu aurreko edozein unetan.

Aldi baterako enpresa-elkarte gisa (ABEE) aurkezten diren eragile ekonomikoen kasuan, hura osatzen duten partaideetako bakoitzak aurkeztu beharko du bere erantzukizunpeko adierazpena. Halaber, konpromisoa

Aulestiko Udala. Donibane enparantza 1-48380 Aulesti, Bizkaia Tel.: 94 6279006-Faxa: 94 6279117 – P4808100D
Web orria: www.aulesti.eus – E-maila: idazkaria@aulesti.eus

aurkeztu beharko dute adjudikazioa lortuz gero aldi baterako enpresa-elkartea formalki eratzeko, eta zehaztu beharko dute partaide bakoitzaren izena eta zer egoera eta zer partaidetza izango duen aldi baterako enpresa-elkartean.

Baldin eta, SPKLren 75. artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritzen bada, horietako bakoitzak ere aurkeztu beharko du erantzukizunpeko adierazpena.

Proposamenak aurkezteko epea amaitzean, egiaztatuko da ea betetzen diren legeak eskatutako izaeraren, gaitasunaren eta kaudimenaren betekizunak.

a.3) Agiri honen 17. klausulan (balio-iritzii bidezkoak) adierazitako balio-iritzien araberako irizpideei erreferentzia egiten dieten agiriak.

<u>"B" GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- "AUTOMATIKOKI BALIOESTEKO IRIZPIDEAK"</u>

Agiri hauek izango ditu gutun-azalak:

b.1) Proposamen ekonomikoa, II. eranskineko ereduaren araberakoa.

b.2) Esperientzia, 17. klausulan ezarritako eran.

Gutun azal honetan, inola ere ez da sartu behar memoria teknikoa, lan programa, edo beste edozein datu, adjudikazio irizpideei dagozkienak, haren balorazioa dagoenean balio irizpide baten mende, "A" gutun azalean sartu behar dira eta.

Datu horietako edozein sartuz gero "B" gutun azalean, ez dira baloratuko agiriok; hortaz, bakarrik emango zaizkio adjudikazio irizpideen puntuak, zenbatu daitezkeenak era automatikoan.

OHARRA: Ez ahaztu digitalki sinatu behar direla agiriak.

20. AURKEZTUTAKO AGIRIAK IREKI ETA PROZESATZEA ETA ENPRESAK AUKERATZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, honako lan hauek burutuko dira:

1. "A" GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOAREN IREKIERA

Kontratazio-mahaiak, kontratatzailearen profilean gutxienez 48 ordu lehenago argitaratzen den lekuan, egunean eta orduan, "A" gutun-azala elektronikoki irekiko du, eta bertan kontratu hau eskuratzeko baldintzak betetzeari buruzko dokumentazioa egiaztatuko du, bai eta balio-judizioaren mende dauden esleipen-irizpideak ere. Horren ondoren, Mahaiak dokumentazioa bidaliko die udal-zerbitzu teknikoei, aipatutako irizpideen balorazioa egin dezaten.

Horri dagokionez, dokumentazio horretan akatsak edo gabeziak zuzendu behar badira, mahaiak sei egun balioduneko epea emango du, gehienez, zuzenketak egiteko, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 27. artikuluan xedatutakoaren arabera, zeinak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen baitu.

2. "B" GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOAREN IREKIERA

"A" gutun-azaleko dokumentazioa ireki eta balioetsi ondoren, kontratazio-mahaiak "B" gutun-azala irekiko du, udalaren kontratatzaile-profilean argitaratuko den egunean eta orduan.

Ekitaldi horretan, jakinaraziko da zer balioespen eman zaion balio-iritzi baten araberako irizpide bakoitzari.

3. ESKAINTZAK SAILKATZEA

Ekitaldi horren ondoren, saio berean, Mahaiak honako jarduketa hauek egingo ditu:

1.- Baldintza-agiriko betekizunak eta eskakizunak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertzea.

2.- Modu automatikoan ebalua daitezkeen edo formulak erabiliz kuantifika daitezkeen irizpideak baloratzea.

Irizpide guztiak balioesten direnean, Mahaiak aurkeztutako proposamenak sailkatuko ditu garrantziaren arabera eta esleipen-proposamena aurkeztuko dio esleipena egin behar duen kontratazio-organoari.

Aulestiko Udala. Donibane enparantza 1-48380 Aulesti, Bizkaia Tel.: 94 6279006-Faxa: 94 6279117 – P4808100D
Web orria: www.aulesti.eus – E-maila: idazkaria@aulesti.eus

SPKLren 149. artikuluan xedatutakoaren arabera, eskaintza anormal baxua jotzen denean lizitatzaileari (edo lizitatzaileei, hala dagokienean) entzungo zaio, eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa egin beharko du.

Kasu honetan, lizitatzaileak emandako arrazoiak eta txostenak aintzat hartuta, kontratazio-organoak ekonomikoki proposamenik onuragarriena egiten duen lizitatzaileari egingo dio esleipena, beti ere Administrazioaren lanak egiteko gaitasuna duela.

Aitzitik, kontratazio-organoak eskaintza ezin dela bete uste badu balio anormal edo neurrigabeak dituelako, sailkapenetik baztertuko du eta ekonomikoki proposamenik onuragarrienaren aldeko esleipena egingo du, proposamenak sailkatu diren ordenari jarraiki.

Emandako pauso guztien berri emango da espedientean, derrigorrean idatziko diren aktetan jasoaz.

3.- Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean sartzea eta, kontratua esleitzeko proposatutako lizitatzaileari dagokionez, kontratatzeko nortasunari, gaitasunari, kaudimenari eta debekuari buruzko datuak egiazkoak direla egiaztatzea.

4. ERREKERIMENDUA LEHEN SAILKATUARI

Aurreko jardunak egin ostean, kontratazio-zerbitzuek errekerimendua egingo diote lehen sailkatuari ekintza hauek egiteko edo dokumentu hauek aurkezteko, zazpi egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera:

a. Behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagiria.

b. Hala badagokio, lizitatzaileari beharrezko baliabideak emango dizkioten erakundeen konpromisoa aurkeztea, SPKLren 75.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

c. Hala badagokio, SPKLren 76.2 artikuluaren arabera kontratua gauzatzeko erabiliko edo atxikiko lituzkeen baliabideak dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.

d. Hala badagokio, kaudimenari buruz dagokion Lizitatzaileen Erregistroan inskribatuta ez dagoen beste edozein agiri. Horri dagokionez, kontratu hau eskuratzeko eska daitezkeen gutxieneko kaudimen-baldintzak honako hauek dira; SPKLren 87.1 artikuluko, a eta b letretan eta 88.1 artikuluko a, b eta f letretan ezarritako bitartekoen bidez, edo kontratistaren sailkapena egiaztatzen duen dokumentazio bidez, egiaztatu ahal izango dira.

Kaudimena egiaztatzeko, gainera, lizitatzaileek beren eskaintzetan zehaztutako giza baliabide eta/edo baliabide material nahikoak atxikiko zaizkio kontratua gauzatzeari. Horri dagokionez, nahikotzat jotzen dira baldintza teknikoen agirian adierazitakoak. Bitarteko horiek kontratuari atxikitzea funtsezko kontratu-betebeharra izango da, eta, beraz, SPKLren 76.2 artikuluan aurreikusitakoaren babesean, kontratua ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoitzat hartu ahal izango da, 211.1.f) artikuluan adierazitako ondorioetarako. Inguruabar hori zuzenean egiaztatuko da, nahiz eta lizitatzaileek klausula honetan aipatutako Erregistro Ofizialen baten ziurtagiria edo Erkidegoko ziurtagiria aurkeztu.

Proposamenek, gainera, kontratua gauzatzeko ardura duten langileen izenak eta lanbide-kualifikazioa ere zehaztu beharko dituzte. Horri dagokionez, adierazten da esleipendunak ezin izango dituela pertsona horiek ordezkatu administrazio honen aldez aurreko baimenik gabe. Inguruabar hori zuzenean egiaztatuko da, nahiz eta lizitatzaileek klausula honetan aipatutako Erregistro Ofizialen baten ziurtagiria edo Erkidegoko ziurtagiria aurkeztu.

Eskatutako agiriak adierazitako epe horretan aurkezten ez badira, lizitatzaileak eskaintza kendu duela joko da. Hori gertatzen bada, puntuazioaren arabera antolatutako eskaintzen zerrenda hartu eta haren ondorengo lizitatzaileari eskatuko zaio lehen aipatutako agiri horiek aurkez ditzala.

Apartatu honetan aipatutako errekerimenduaren ondoren aurkeztutako dokumentazioak zuzentzeko moduko akatsik baldin badu, hiru egun naturaleko epea emango zaio hura zuzentzeko; lizitatzaileari zuzenean jakinaraziko zaio, eta udalaren kontratatzaile-profilean ere iragarriko da.

Aulestiko Udala. Donibane enparantza 1-48380 Aulesti, Bizkaia Tel.: 94 6279006-Faxa: 94 6279117 – P4808100D
Web orria: www.aulesti.eus – E-maila: idazkaria@aulesti.eus

21. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK

Kontratazio-organoak ekonomikoki proposamenik onuragarriena egiten duen lizitatzaileari egingo dio esleipena. Esleipena hamar eguneko epean egingo da proposamenak irekitzen diren egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Horren berri lizitatzaile guztiei emango zaie eta Erakunde honen kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratua, lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio-agiri gisa formalizatuz burutuko da eta aipatu agiria nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratistak kontratua publikoki aurkezteko eskaera egin dezake eta horri dagozkion gastuak bere kontura izango dira.

Esleipenaren jakinarazpenean adierazitako epean (gehienez ere hamabost egun baliodun), esleipendunak Administrazio honetan agertu beharko du, kontratua administrazio-agiri batean formalizatzeko..

Azkenik, formalizazio-dokumentuan jasotzen den epearen barruan (sinatu eta gehienez hamabost egunera), esleipenduna Administrazio honetara etorriko da proiektuaren zuinketa egiaztatu eta dagokion akta sinatzera. Une horretatik aurrera, kontratuaren exekuzio-epea kontatzen hasiko da.

SPKLren 152 artikulua jarraituz, esleipen prozedurari uko egiten bazaio edo kontratua ez esleitzea edo ez gauzatzea erabakitzen bada, Administrazioak finkatuko du lizitazioak lizitatzaileei sortarazitako gastuen konpentsazioa, beraiei entzunaldia emanez aldez aurretik eta gastu horiek justifikatuz beti ere.

Kontratua kontratistaren errua diren arrazoiengatik ez bada sinatzen, Administrazioak bera suntsiaraztea hautatu ahal izango du, interesatuari aldez aurretik entzunaldi emanda, dagokion kalte-ordaina jasoz hori dela eta.

Esleipendunak izan ez direnen proposamenak ofizioz bueltatu edo xahutu ahal izango dira urte beteko epean, proposamen ekonomikoa daraman sobreak izan ezik; hauek mantendu egin beharko dira edozein kasutan.

III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

22. KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egingo den kontratuak administrazio-izaera izango du eta baldintza-agiri honen eta atxikitako gainerako agiri teknikoen arabera burutuko da. Bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, hauetan xedatutako arauak beteko dira: Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea; Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, indarrean dagoen Legearen erregelamenduzko garapenik ez dagoen bitartean; urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartzen duen Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra, 9/2017 Legearen aurka ez doan arauetan; eta, hala badagokio, Herri Administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerako arauak.

Administrazio Baldintza Zehatzen Agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

Plegu honetaz aparte, kontratu izaera izango dute ere ondorengo dokumentuek:

- Baldintza teknikoen plegua.
- Kontratatze organoak onartutako lanen egitaraua.
- Kontratua gauzatzen duen dokumentua.

23. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak ondorengoak bete beharko ditu: SPKLren Hogeita Bosgarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak Datuen Babeserako eta eskubide digitalen bermerako abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin bat, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.

Aulestiko Udala. Donibane enparantza 1-48380 Aulesti, Bizkaia Tel.: 94 6279006-Faxa: 94 6279117 – P4808100D
Web orria: www.aulesti.eus – E-maila: idazkaria@aulesti.eus

Baldin eta, enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute dirua ordaintzera, diru hori kontratistari jasanaraziko dio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

24. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai eztabaidagarriak administrazioarekiko auzien ordenera lotuko dira; hala ere, aldeek ahal izango dute adostu bere gai eztabaidagarriak arbitrajera lotzea, indarreko legediak ezarritakoa jarraituz.

Aulestiko Udala. Donibane enparantza 1-48380 Aulesti, Bizkaia Tel.: 94 6279006-Faxa: 94 6279117 – P4808100D
Web orria: www.aulesti.eus – E-maila: idazkaria@aulesti.eus

I. ERANSKINA. KONTRATATZEKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKO ADIERAZPENAREN EREDUA

…….. jauanak/andreak, ……..-n helbidea duena, ……PK, …… NAN zk., …… telefonoa, …….. e-maila, gaitasun juridiko eta jarduteko ahalmen osoa duela, bere izenean (edo …….-ren ordezkaritzan, ……..-n helbidea duena, ……PK, …… NAN/IFZ zk, baldin eta pertsona fisikoa edo juridikoa bada., …… telefonoa),…… kontratatzeko ……-k deitutako prozeduraren berri izanda, nire erantzukizun pean.

ADIERAZTEN DUT

I. Sozietate hori, haren administratzaileak eta legezko ordezkariak, bai eta sinatzailea ere, ez daudela Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan adierazitako kontratatzeko debeku eta bateraezintasun-arrazoien artean.

II. Sozietate horrek egunean dituela indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

III. Aipatutako sozietatea ekonomia-jardueren gaineko zergari dagokion epigrafean alta emanda dagoela.

IV. Sozietate horrek ez duela zerga-zorrik administrazio kontratatzailearekin betearazpen-aldian, edo bermatuta dituela.

V. sozietate horrek administrazio-klausula zehatzen pleguak kontratu hau eskuratzeko ezartzen dituen baldintza guzti-guztiak betetzen dituela.

.....n,.....
.aren..... (e) an,..... (e) ko.....

Sinadura

Aulestiko Udala. Donibane enparantza 1-48380 Aulesti, Bizkaia Tel.: 94 6279006-Faxa: 94 6279117 – P4808100D
Web orria: www.aulesti.eus – E-maila: idazkaria@aulesti.eus

II. ERANSKINA. PROPOSAMEN EKONOMIKO EREDUA

…….. jauanak/andreak, ……..-n helbidea duena, ……PK, …… NAN zk., …… telefonoa, …….. e-maila, gaitasun juridiko eta jarduteko ahalmen osoa duela, bere izenean (edo …….-ren ordezkaritzan, …….-n helbidea duena, ……PK, …… NAN/IFZ zk, baldin eta pertsona fisikoa edo juridikoa bada., …… telefonoa),…… kontratatzeko ……-k deitutako prozeduraren berri izanda, nire erantzukizun pean.

ADIERAZTEN DUT

1) Konpromisoa hartzen dut honako hauen truke gauzatuko dudala:

..... €-ko prezioa, gehi %..... BEZ-ri dagozkion .....€, eta..... epean Prezioan kontzeptu guztiak sartzen direla ulertu behar da, edozein zerga-eremutako zergak, gastuak, tasak eta arielak barne, bai eta kontratistaren industria-onura ere.

2) Ezagutzen ditudala proiektuaren edukia, administrazio-klausula zehatzen agiria eta kontratu hau arautuko duten gainerako agiriak, eta oso-osorik onartzen ditudala.

3) Ordezkatzen dudan enpresak indarrean dagoen araudiak enpresa ireki, instalatu eta jardunean jartzeko eskatzen dituen betekizun eta betebehar guztiak betetzen dituela.

.....n,..... .aren..... (e) an,..... (e) ko.....

Sinadura

Aulestiko Udala. Donibane enparantza 1-48380 Aulesti, Bizkaia Tel.: 94 6279006-Faxa: 94 6279117 – P4808100D
Web orria: www.aulesti.eus – E-maila: idazkaria@aulesti.eus